

ZAR


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

128n. Zenbakia

Epailla
Martia
1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



DONOSTIA

– ALDERDI EDER ZUGAZTIA
– UDALETXEA

ANTZEZ-MINTZ BAT

ZIRIKALDIAK

Gizona zan ezkerro, aragi zirikadarik ete eukazan Jesukristo'k? Zergaitik ebangelioak ez dira eskue ezer gauza onetaz? Garrantzirik ez daukolako?

Espiritu bizidun gizonak, aragia erraz garaituten jakin badakie.

Aragikeria baiño arrokeria gaiztoagoa da. Komentuetan garbitasunaz bizi izaten da. Alan be Teresa Doneak diño: "Los puntos de honra pierden muchos conventos".

* * *

GARRANTZIA

Lizunak gajoak, aragikerian sartuta bizi diranak, uste dabe euren baiño ez dagola buruausterik. Baiña aragi-pekata beste batzuen aurrean, garrantzi txikiagoa da.

Agustin Doneak diño arrokeri ezkutua kentzeko, Jaungoikoak aragikeri agiria lagaten dauala.

* * *

EZ DAKIE

Ba-dira eskue ebangelioak Gure Jaunak zirikada batzuk euki ebasala zirikada garrantzitsuak arrokeriarenean osten ez dago aipatuteko zirikadarik-eta.

Scorsesse k, Kazantzakis'ek eta orrelako gizonak, zer esan al dauskue Kristo ren jarraitzalei Gure Jaunaren bizitzari buruz? Eurak ete dakie Jaungoikoaganako bidea zer dan?

* * *

GORROTOA

Urte batzuk ba dira, Maomari buruz beste pelikula edo Antzez-uintz bat egin ebela, Maomatarrak gizonaren irudiak egitea debekatuta dauke. Orregaitik ezin dogu ikusi Mahomaren irudirik. Jarraitzalei jaken begiruneagaitik, Mahoma'ren irudia agertu barik, pelikulea egin zan.

Oraintsu Jomeinik millo bat dolar eskifin dau Mahoma'ri buruz, bere ustez eritxi okerrak emon dauzan idazle bat iltearren.

Zergaitik ez dabe egin orrelaxe pelikula onetan? Zergaitik ez dabe euki gutaz, Kristo'ren jarraitzalletaz, begirunerik maomatarrekaz euki eben lez?

Kristo'ren aurrean grinik-ezarik ez dagolako. Kristo berak zirauskun: "nire alde ala nire aurka". Len kristaua izan dakoak (Scorsesse ta Kazantzakis lez) kristautasuna utzitean Kristo'ri gorrotoa izaten dautsoe.

ESKUBIDEA

Bilbao'ko egunkari batean onelan idazten da: "Eliza katolikoak ez dauko eskubiderik berba egiteko..." Irakurtekoa da au! Gaur eskubideak danentzat Elizearentzat izan ezik!

Askatasuna dagolako, oiñarritu dabe pelikula iguingarri au. Baiña kristauak minduta gagozela esateko, ez dago askatasunik. Ez daukogu eskubiderik. Au, ospe gutxiko periodistak idatzia izan dan arren, askoren pentzakerada da.

Badakigu, demokrata onen eritiz, kristauak ixillik egon ta jasan egin bear dogu.

IBAÑEZ KARLOS

OLERKARIAREN OÑATZ, ABESTIA

Olerkariaren oñatz, abestia, izan bedi lurrarenganako maitetasun billaketa; zaingorritzko sustrai sakonen ukututzea; zeru-alde ezkutuen azi argigarri ta, onbidezko gogaietara aurkeztea, beti, zindoro, maitasunez aurrera beti.

Eskuak begoz beti ernai erintzarako gogotasun eraginkorrez prest lanerako; maitetasunezko ibilbidez begoz beti gerturik aurrerazko mundu barrietarako baldin bada, negar ororen arintzerako.

Zenbat aldiz dakusgu gure azal, narrua, bekaizkeri illunkorrez jo ta urratua; zenbat bider erraiak minduraz odolotan baiña, gogoz daruagu geure elburua zati bat itxiarren an bideko arantzetan!

Izan bedi bai, olerkariaren abestia laguntzapenezko abots maite sendagarri, gogo goralkor baten bizidun iturria; eskuak gerturik dirala ta agurgarri izan bedi erein naiz jasotzeko garia eskerrak emonaz geure emetsen Lurrari.

MINIATEGUI-tar SABIN

BAKE-BIDEA ARGEL'en?

GUDEAREN BIDEA

Errien artean alkar ulertu-eziñak izateak, ez gaitu arritu bear. Iñor be ez, baiña gitxiago euskaldunak.

Baiña zelan konpondu alkar-ulertu-ezin oneik?

Bide bat baiño geiago dagoz orretarako, baiña onartu ezin leiteken bide bat gogorkeriarena edo gudearena da. Gudeak ez dau sekula bakea lortzeko biderik zabaltzen.

Ez dauka bakerik galdu dauanak. Beste aukera bat itxaroten geratuko da, berari egin dautsoena berak be egiteko.

Ez dauka bakerik irabazi dauanak, bakea ez dalako lortzen nagusikeriagaz edo arerioak menpean eta isillik eukiteagaz.

Gudea amaitzen danean, bakea nai ba'da, ez dago beste biderik mai baten inguruan alkar-izketan astea baiño. Eta gaiñera gudarik izan ez ba'litz lez, ez galtzaille lez iñor artuta: Vae Victis! esaten eben Erromatarrak eta ori orrelan izaten da. Galtzaillea menpean geratu leiteke, baiña ori ez da bakea.

MAIAREN INGURUAN

Gaiñera, irabazleak bere legea ezartea bakerako bidea ba'litz be, euskaldunok, erri txikia izanik, nori irabaziko geunskio? Erri txikiaren irabazbidea ez da gogorkeria, zuzentasunaren jokabidea baiño.

Erri txikiak joko batzuk egin al izango dauz erri zapaltzaillearen bizitza mingostuteko, baiña ez gerra bat irabazi.

Ori izan da Euskalerriko alde batek espaldion artu dauan bidea, gogorkeriaren bidea, guda-txikiaren bidea. Eta ainbeste urtetan or ekin izan dau. Ondoren batzuk lortu be bai. Nok uste izango eban Erri zapaltzaillearen

ordezkariak eta gudarari txikiak mai baten inguruan jarriko zirala? Oñaiño eldu gara!

*

ARGEL'en ZER?

Argel'en diardue ba, alde bietako ordezkariak alkar-izketan, alderdi politikuak be orren barriak izaten dabezela.

Elduko ete dira alkar-izketa erreik bakea lortzera?

Gure kondairak olako bakeak egitean kontuz jokatzeke diñosku. Euskaldunok ez dogu sekula aitzuko Bergara'ko Besarkadea eta ondoren etorri zan atsipena. Olako gauzak bein egiten dira, gogo oneko gizonak eta erriak iruzurtuz, baiña gogo onaren ondoan zurtasun aundi bat ipiñi-bearra dago.

Ez' daiteia izan ondorena bakea, baiña bake txarra. Orretarakotan oba mai-inguruan sekula jesarri ez.

Eta zer eskatzen dau bake onak? Azkenengo elburu lez, Euskalerrri osoari, eta osoa diñodanean Napparoa ta Iparralde barruan dira, Erri bat izateko bideak zabalik iztea. Gaur ez da lortuko dana, baiña bidea zabalik geratu daitela beintzat. Erriari erri izaten izten ez dausoenak erri-iltzailleak edo "genozidak" dira, eta gaur ain aurrera daukagun jakintzak ez leuke onartu bear iñongo erririk nortasun barik eukiterik, gitxiago iñongo erririk ilterik.

Eta gaiñera, zabalik geratu bear dauan bide orretatik oraintxe emon bear dira emon al diran oinkadak.

ASKO JOKATZEN

Argel'en asko jokatzen da ba. Alde batetik bakea, ilketak ondasun galtzeak, samintasunak eta negarrak baztertzen dauzan bakea, baiña beste alde batetik erriaren nortasuna aintzat artzeko eskatzen dauan bake ona.



1988 URTEKO EKINTZAK

Gabon, bazkide maiteok:

Ona emen, azkenengo Batzar Nagusitik, beste urtebete bat igaro eta gure artean oitura dan Iez, igazko, au da, 1988 urteko ekintzen txostena.

IKASTAROA

Beti lez, euskera-irakaskintzari jarraitzen dautsagu. Izan be, ikasleen izen-emotea ez da izan gura izango genduken bestekoa, baiña arlo onetan, badirudi adorea ez dala piztuten euskereak merezi dauan maillaraiño. Aurtengo izen-emotea 175 ikaslekoa izan da, beste urtean lez gitxi-gorabera.

Beste urteetan izan dogun Udako ikastaroa ez dogu ospatu, eskaera gitxi artu doguzalako.

IPUIN-SARIKETEAK

Aspaldiko oitura oneri jarraituz, igaz be sariketa onetarako deia zabaldu genduan, baiña aurkeztutako lanak atzeratu dira, idazlanak garaiz aurkeztu ez diralako. Augaitik ba, sariak banatzeko, epea atzeratu bear izan dogu. Orain, lanok aztertzen diardugu, eta il au amaitu baiño len, epaiketea egingo da.

Sariak, aurreko urtean lez izango dira, au da, 40.000, 30.000, 20.000 eta 10.000 laurlekokoak.

BIZKAIERAZKO EGUTEGIA

Igaz be, oitura txalogarri oneri jarraituz, Martin Olazar'ek zuzenduta, eta etxeko lankide batzuk lagunduta, argitaratu da gure egutegia, Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzari esker.

Aurten be, beraz, gure aberriko etxe askotan oiko arrera ona egingo yako.

"ZER" ALDIZKARIA

Bizkaieraren aide agertzen dan aldizkari bakarra, ondo dakizuenez, illero-illero agertu da ta zuen eskuetan izango zan utsik egin barik. Ekintzaren batek gure aalegiñak merezi ba'dauz, auxe da zalantza barik guztien adore ta laguntza bereganatu bear dauzana.

Erakunde ta alderdi politikoen euskeraren aldeko ekintza ta laguntza guztiak, gure bizkaieraa aztu ta zapuztu egiten dabenean, guri etorri yaku, bizkaitar askoren ardura-ezaren artean be zoritxarrez, Bizkai'ko gure euskera zapalduaren aide burrukan egitea, eta burruka onetan gaurregun "ZER" iskillorik egingorrena dogu.

Goiko erakundeentzat bigarren edo irugarren mailakoa garan euskaldun bizkaitarrai, sarri askotan esaten yaku, usko Jaurlaritza etab., euskalki guztien aide dagozala, aiña ekintzaren orduan betiko jokabidea darabilte, bizkaieraa baztertuz etxeko errauskiñ zikiña bai'litzan.

Asko mintzatu da gure artean, espainarren jokabide burubakoari buruz, euskaldunak erdereaa ikasten beartuz, baiña gaur, geurea ez dan euskereaa ikasten beartzen gaituenean, gure Jaurlaritzak eta beste erakunde ospetsuak, ez dabe ezer egiten, mututu dira, eta Bizkaitik artutako dirua, bizkaitarren euskereaa txokoratzeko erabilten da. Ziñisteziña, baiña egi utsa. Egunen baten bizkaitarrok itxartuko at gara...!

LAGUNTZAK

Gure asmoak garatzeko edo aurrera eroateko, ezin bestekoa yaku diru-laguntza. Zoritxarrez, baiña, igazko laguntza on urria izan da, eta gure oiko ekintzak garatzeko txarto ikusi dogu gure burua. izan be, arlo au konpontzen ez ba'da, gure ekintzak diruaren giñoan ibilliko dira, au da, gero ta gitxiago.

Eta diruari buruz jarduten dogun ezkerro, esan bearrean naz, gure egoera larria zati baten gure bazkideen ardura-ezari zor yakola. Bazkide asko dira urteak joan urteak etorri, urteko saria ordaintzen ez dabena, eta augaitik, gaurko eretia ustiatuz, eskatzen dautsegu 1.000 laurlekoko bazkide-saria bialtzea ez dakiela aztu.

Dana-data, guztien laguntzaz aurrera joango garala ziur gagoz, eta urte zorionsua guztioi opa izanik, agurtzen zaituet.

Besterik ez.

ZUBIRI'tar IÑAKI



ALTUNA TAR JOSU

(Basa Jaun)

USTE BARIK

Urtea asi barria dala joan jaku euskalzale, mendigoizale ta abertzale amorrotua zan Josu.

Arriturik gelditu giñan barri txar ori entzundakoan. Egun batzuk baiño ez ziran alkarregaz barriketan egon giñala. Ain zorionsu egoan lagunakaz!

Nok ulertu Jaunaren bideak?

Egunokaz ZER irakurri eta berak idatzitako lanak ikusi, beti kementsu, beti ameslari, ezin izan dogu gorago esandakoak gogoratu baiño.

Euskalzale, mendigoizale eta abertzale amorrotua.

EUSKALTZALE

Bera baiño jakituri aundiagokoak, letratan batez be, ainbat dira eta izango dira, baiña euskeraren maitasunean, zalantzan gagoz beste norbait geiago izatea. Bere maillakoak bai, ainbat, zorionez, baiña geiago...?

Ez zan erreza erderaz, gatzelaniaz beragaz egitea, berak jakinean euskalduna ziñala, nai eta zuk errezta-sunik izan ez berba egiteko. Bai zera. Ona zan bera ba.

Eta nai ta erdeldunen artean egon, norbait euskalduna ba-zan, euskera be entzungo zan alkarrizketa artan.

Ule-moztegia eukan sasoi beten, eta izen ori bere ate buruan eukan nai eta ondo ikusia ez izan garai atan. Baiña berak bercari eutsi.

Euskaldunen ule-moztegia zan, eta kaleetan jendeak bildurrez edo erderaz egiten ba eben, a zan toki egokia euskera utsean berba egiteko.

Bai ta be idazgela. Bere makiñatxua bazter baten, eta bezeruari itxaroten egoan bitartean, an idatziten ebazan bere artikulu atsegingarriak. Ez zan edozelakoa ez arlo orretan.

MENDIGOIZALEA

Gazte gaztetatik asi zan, mendiak lenengo eta erbeste-koak gerotxuago, ezagutzen. Baiña batez be gureak.

Zenbat ibil-aldi inguruak arakatzen, tontor aundi ta txikiak zapaltzen, gero urko eta urriñekoei bere idazlaren bitartez irakasten. Aurrean dogu bere azken lana ZER'en. Baiña bere mendigoizaleak arritzen ba-gaitu, zeregin ori bere azken urteotan, zelan bete eban ikusi bear.

Askok jakingo dozue aspalditik errenka ebillela, motorean izandako estripu baten erruz. Ainbat operazio izan ondoren izter bat bestea baiño luzeago gelditu jakon. Beste norbaitentzat naiko izango zan ori etxean gelditzeko, baiña ei gure Josu'rentzat.

Bere atsegiña, bere poza, zalako alde batetik, baiña ez gitxiago bere irakatsiakaz, euskaldun gazteen biotza sutan ipinteko an ebillan zu ta ke, nai eta min aundiak izan sarritan berak esaten eustan lez. Eta zergaitik ori?

Irugarren gaira gatzoz.

ABERTZALEA

Bai bere abertzaletasunagaitik.

Guda-aldian ertzaiña izan zan.

Eta bai alegiñak egin ebazala bere Erria ondo zain-ten andik aurrera be bere bizitza guztian. Besterik al izan ez zanean, GANGUREN mendigoizaleen alkarte-a sortu eban.

Zer ez ete zan egosi an burruan. Ule-moztegitik Ganguren'era eta emendik era zenbat ixilpeko zabal-kunde, propaganda erabilten eban gure adiskideak.

Eta askatasunera eldu giñanean lenengoetarikoa gure batzokietan bai euskera irakasten bai bere aolku zintzoak emoten, lanari uko egin barik, beti prest Aberriaren alde lan egiteko.

Orrelan dagoala artu dau gure artetik ZERUKO AITAK Bere magalean.

Ezin bestera izan.

Agur Josu baiña ez betiko. Egun aundirarte.

Goian bego

"B. BERRIO-OTXOAREN BIZITZA" EZEZAGUN BAT

B. Berrio-Otxoa santu egin deuskuen urtean, ainbat liburu ta idazlan argitaratu da santu barriaren inguruan. Nik, orain, aspaldiko liburu txiki apal bat aitatu gura neuke, gai berbera darabillana, baiña ezezaguna, edo gitxi ezagutua: "*Be iotxoa tar Balentin'en bizitza*", EGARTEk idatzia eta Bilbon argitaratua, 1952garren urtean.

LIBURU EZEZAGUNA

Alperrik joango zara euskal bibliografietara liburu onen barri billa. Jon Bilbaoren Bibliografia ugariak "EGARTE"-rik aitatu be ez dau egiten, eta liburu onen titulurik be ez dakar "Berrio-Ochoa Arezti, Valentin"-en saillean (t.I, 573 or.). Joan Mari Torrealdyren *al idazleak gaur'* (JAKIN, 1977) liburu egokia dozu gure gerrosteko liburu barrien zerrenda jakiteko. Egilleak berak aurtortzen deuskunez, lan andia egin eban zerrenda ori osotuteko: katalogoak eta liburutegiak aztertu, euskal jakitunen laguntza eskatu (eta laguntzailleok ez ziran edozelakoak izan: P. Lafitte, J. San Martin, S. Onanindia, N. Alzola...). Baiña, ori ta guzti be, Torrealdy ez dau bere zerrendan EGARTEren liburu au sartzen. Eta ez, gero, txikiegia zalako: "... liburuxkak ere sartu ditut. Ez denak, hala ere, 15 orrialdetik beherakorik ez dut kontutan hartu..." (Torrealdyren berbak, 570 or.). EGARTEren liburuak, ostera, 138 orrialde ditu. Nikolas Alzolaren katalogoetara be jo dot, idazle ta idazlan apalen lagun begikoa izan zalako gure "Bitaño". Baiña alperrik oraingo onetan be: gure ixurtzarra 1955garren urtean asi zan liburuen barri emoten "EUSKERA" aldizkarian, eta Berrio-Otxoaren bizitza au iru urte leenagokoa da.

LIBURU GOGOANGARRIA

Txikia ta apala da, bai, liburu au, baiña gogoangarria be badala uste dot, alderdi askotatik ikusita; eta orrexegaitik emon gura dot beronen barri. Ona emen alderdi batzuk.

EGILLEA

Azalean bertan agertzen danez, EGARTE da egillea. "Berbau ean" esango jaku "Abade Jaun agurgarria" dala, eta abizentzat artzen dan "EGARTE" orri izenaren laburpena be ezarriko jaku: "F. EGARTE".

Besterik ez. Berbaurre ori Klaudio Gallastegi ebadeak egin eban; eta D. Klaudioaren ustez, "F. Egarte" idazle edo egille bakarra da, eta bizkaitarra ganera: "Esan legike, Egarte Jauna, Balentinen umearoan, Elo ioko e ian bizi izan zala, bertoko oitura onen usain biguna gure egunetariño ekarteko" (3-4 or.). Ez ekian ezizena zanik "Egarte" ori, ezta ezizen orren azpian iru lagun, iru abade gazte, egozanik ezkutauta: Patxi Epelde (E) azpeitiarra, Xanti Garmendia (GAR) lazkaoarra eta Txomin Artetxe (TE) bizkaitarra, Areatzako semea. Iru abadeon abizenez osoturiko izenordea dogu "EGARTE".

URTEA ETA AROA

Liburu au Bilbon argitaratu zan, 1952garren urtean. Itzaurrea be urte orren jorraillean egin eutson D. Klaudio. Ordurako, taldeko iru egille lotsorrok abade egin da egozan; eta liburu bera urte bi leenago amaituta, Gasteizko Seminario Nagusian.

Leku ta aldi batzuetan Gasteizko Seminarioak "abertzale" usain (ala ats?) andia izan eban. Gerrostean andik igaro giñanok, ostera, ez geuntsan euskal usainik artu al izan: an euskerea aitatu be ezan egiten eskoletan, ezta iñon entzun be, geure arteko jardun arruntetan izan ezik. Eleizan urtean bein entzuten zan euskerea: ikastaroko azken egunean genduan "Agur, Jesusen Ama" kantuan. Egia osoa esateko, kontzertuetan euskal abestiak be sartzen zituezan, gure gogo-biotzen pozgarri. Ortik kanpora, latiña, gerkera, frantseza, eberkera... eta ainbat eratako gai ugari. Bertoko berbetea, euskerea, non zanik eta zer zanik be ez!

Alakoren baten, gerroste garratz, luze ta illun orrek be izan eban gure artean eguzki epel baten egunsenti itxaropentsua: ikasleak eurak asi ziran, eurak euretara, euskerea ezagutzen, aintzat artzen, ikasten, bakarrean eta alkar arturik lantzen... Olakoxe giro barrian sortu zan gure liburu apal au, egilleetako batek (Epeldek) idatzi eustanez: "Gure lantxo au, argitaratzeko asmotan etzan egin. Euskera ikasteko gogo bizitan biltzen giñan taldetxo bat... Gure buruak geiago beartzeagaitik eta lana pozikago egiteagaitik, iru lagunon artean (Txomin Artetxe, Xanti Garmendia eta ni: EGARTE) lan berezi bat egitea erabaki genduan...".

LIBURUAK

GAIA

Tituluak berak diño, argi ta garbi, gaia zein dan. Eta Epeldek autortuko deusku: "Denbora asko etzan, bi apaizgaiek (Bujanda eta Hormaetxe) erderaz Berriotxoaren bizitza argitaratu zutela. Liburu ori irakurtzean, gure Berriotxoa gai egokia iruditu zitzaigun, egin nai genduan lana egiteko, eta euskeraz bere bizitza idaztea pentsatu genduan: euskal giroko gizon guztiz jatorra agertzen bait-zitzaigun B. Berriotxoa: dantzari, bertsolari, pelotazale eta abar".

Baiña iru egilleon lan ori ez da itzulpen soilla izan: erderazko liburua oiñarrizat arturik, laburtuago eta euren erara idatziko dabe Berri-Otxoaren bizitza. Zelan? "Bi gipuzkoarrok gipuzkeraz idatzi genduan lenengo, eta gero Txomin Artetxek bizkaieraz ipiñi zuan. Irurok tajutu genduan guztia: bakoitzak egindako lana, iruron artean irakurri, zuzendu eta abar". Au olan izan arren, liburua ber irakurten badozu, ez dozu iñon iru eskuren lorraztik aurkituko. Leenengo orritik asita, egille bakar baten lana dala emoten dau. Eta egille orrek bere burua bizkaitartzat dauko, kiputzeekin izaten dituan eztabaida anaikorrak be umoretsu aitatzen dituala: "Gipuzkoaren ala Bizkaiaeren ospea ete zan ospetsuagoa" (7 or.). Ez dago esan bearrik: darabillan euskerea, Bizkaiko berbeta garbia da, Arratia aldeko usain gozo ta guzti, Txomin Artetxerena dan ezkeru.

LAGUNTZAILLEAK

Iru aitatu eustazan Epeldek bere eskutitzean. Leenengo, Gasteizko Urrestarazu jauna ("UMANDI"), liburua makiñaz idatzi ebana (olako tresnarik ez egoan abadegeien eskuetan orduko seminarioetan). Bigarrena, Manuel Lekuona: "1950garren urtean, apaiz egin giñan urtean, On M. Lekuonari (garai artan Lasarten bizi

zan), gure lantxo au erakutsi nion, bere iritzia eman zezan. Irakurri orduko, argitaratu egin bear zala esan zidan. Eta itz bat ere aldatu gabe, Aita Garrastatxu dominikotarrari bidali nion. Eta berak argitaratu zuan". Irugarrena, D. Klaudio Gallastegi. Poz-eztia eriola egin eutsan berbaurrekoa D. Klaudiok, bere erritar maitea goraldtu nai eban liburu txiki oni. Lorarik eta ziorionik ez deutso ukatuko "bizitza onen egille dan F. Egarte agurgarriari". Ez ete da itzaurre au San Antongo Abade Nausiaren leenengo euskal idazlana? Nik neuk, beintzat, ez deusat aurreragorik ezagutzen.

Berri-Otxoaren inguruko euskal bibliografia norbaitek batu ta osotu bearko leuke. Ez dabe gitxik aztertu ta goraldtu gure santu barri au: Xenpelar, Arrese-Beitia, Kanala-Etxebarria, M. Lekuona, Aita Goiria... eta, orain-tsuago, A. Zubikarai eta J. Kerexeta, orra or idazle batzuen izenak. Euron artean, gure EGARTEk be euko al dau bere lekutxoa, orrenbeste ta geiago zor jako-ta. Ain zuzen be, bizitza barri ori argitaratu zan urtean (1952), badakizu, irakurle, zenbat euskal liburuk ikusi eben argia? Ogeta bostek (25) baiño ez, Euskalerrri osoan (eta eurotariko 6, Iparraldean). Bizkaieraz, Torrealdaiyk diñoskunez, 3 liburu baiño ez ziran argitaratu, irurak Aita Txanton Goiriarenak, eta eurotariko bata "Be io-Otxoaren bizitza", ain zuzen be.

Ez ori bakarrik: gure gerroste guztian, ordurarte, beste 5 liburu baiño ez ziran argitaratu bizkaieraz: kristiñau ikasbide 2, Karmengo Amaren Egutegia, Arkotxaren "Nork nori ziria sartu" eta A. Zubikarainen "Itxasora". Besterik ez. Orren urri dan bizkaierazko euskal bibliografian izango al dau, aurrerantzean, bere lekua (zor jako-ta!) iru abadegeiok (kiputz-bizkaitarrak alkar-ta) talde-lanean egindako liburu txiki txalogarri onek!

K. ETXENAGUSIA

ZIBILIZAZIÑO MADARIKATUA (1988: 1.º SARIA)

Ameriketako Andes-mendietan, baso-basoan, txabola bat egoan, lau aldetatik zugaitz andiz inguratua.

Etxe txiki pobre aretan Kenuba eta Jate, senar-emazte indioak bizi ziran, euren alabatxo Naikibe ama-bi urteko alabarekin.

Txabola inguruko baratz-ortutxoak landuz urte guztirako naiko arto eta mandioka eskuratzen eben.

Bestaldetik, basoak berez emoten ebazan platano, aguakate eta mango kin ba-euken eguneroko gosea zegaz kendu.

Txabola buruan iturri garbi bat sortzen zan egarria kentzeko...

Bizitzeko zer bear zan geiago?

Naikibe, neskato begi baltza, basa-txorien lagun andia zan.

Goizean goiz txorlitoak, perikitoak eta guakamaioak, eguzkia mendi gaiñetik agertzen zanean, zugaitz adarretan kanta-kantari asteñ ziran Naikibe, euren lagun-txoa, itxartuteko.

Gero Naikide, txabola aurrera urtenda, arto garauak eskuetan, txoriari jaten emoten asten zan; eta txori basatiak zugaitz adarretatik egaz jatsita, neskatoaren buru, sorbalda eta eskuetan kokatzen ziran, txio-txioka janari eske...

Gosea ase ondoren, txoritxoak barriro zugaitz adarretara egaz igon, eta egun barriari kantatzen asten ziran, Naikibe'k lurrean, arin-arin, dantzan egiten eban bitartean.

Kenuba, Naikibe'ren aita, goizero, bere uztai eta geziak artuta, basora joaten zan eizan egitera, eta iluntzean etxerantz alai txistuka etorten zan, untxi, mixar eta katagorriak garritik dingilizka ekazala.

Aita basoan eizan ebilen bitartean Jate'k, Naikibe'ren amak, etxeko lanak egiten zituan, bere alabatxoak lagunduta.

Iurak alkar asko maite eben, eta ezeren bildurrik, eta inoren enbiri barik, euren txabola txiroan, basoko landare, txori eta abereen artean poz-pozik bizi ziran... Ludiko zorionekoenak ziran.

Baiña, zoritxarrez, an urrunean, mendiaren beste aldean, "traka-traka" zarata bildurgarri bat entzuten asi zan.

Aita, ikus-miran, mendi gaillurera igon zan, eta tramankuillu aundi ikaragarri bat ikusi eban, suurretatik kea dariola, bere buzdiñezko atzapar zorrotzakaz zugaitzak bota eta txikitu, eta lurra urratu eta zelaitu egiten ebazana.

Panamerikan autopistako traktorea zan.

Eta deabruzko zarata beldurgarri on egunero eta txabolatik ondorago entzuten zan.

Azkenean tarmankuillu ikaragarri ori, urrumaka, orroaka, suurretatik kea dariola, txabola aurrean agertu zan.

Infernuko itsaia zala emoten eban.

Kenuba eta Jate, Naikibe'ren aita eta ama, euren txabola maitea defenditzeko makiña bildurgarriaren aurrean jarri ziran, baiña deabruzko tresna astun arek, bere burdiñezko atzaparrakaz, Kenuba eta Jate txabola-rekin batera, bere sabel azpian irunsi ebazan.

Indio bi gitxiago, zer munduarentzat?

Naikide, neska polita, bide bazterrean, aita eta ama barik, umezurtz, menduan bakar bakarrik gelditu zan.

Bere begi baltz andietatik botatzen ebazan negar malkoakaz itsasoa bete eikean.

Naikibe, bide bazterrean bakarrik, negar ta negar egoan lekura gizon aberats bat urreratu zan. Panamerikan autopistako injineria zan. Naikibe indio neska polita negarrez ikusi ebanean, errukitu zan, eta bere alabat-zat artu eban.

Eta gizon "zurien" zibilizaziño bizitza zein ederra dan erakusteko injineriak indio neskatoa uriko bere etxera eroan eban, eta bere emazteari esan eutsan:

Basoan aurkitu dodan indio, neska polit au, geure alabatxoa balitz lez ondo zaindu egizu, eta erri "zibilizatu" aurrerap n guztiak erakutsi egiozuz, negar egi-terari itzi, eta bein betiko poztu daiten.

Injineriaren emazteak neskatoari indio jantziak erantzi, eta "zibilizatuen" sedazko jantzi eder politak soñean ipiñi eutsazan.

Bai polita ikusten zala Naikibe, amabi urteko neskatoa, bere gorputz lirain eta begi baltzakin, "zibilizatuen" jantzi bitxiekin jendeen aurrean agertu zanean! Emakume guztiak kalean begira begira jartzen ziran zoraturik gure neska lirain, panpoxaren aurrean.

Baiña Naikibe'k —bere lagun txoriekin amesetan esaten eban:

Basoko txorien lumazko jantziak askoz politagoak dira! Eta negarrari emoten eutsan.

Injineriaren emazteak, Naikibe'ren biotza zerbait alaitzeko asmoz, entzute-andiko dantza-leku batera eroan eban, ango kantariak entzutera.

Ango musikariak bai soli-1u eta kantu gozoak abesten ebezala!

Eta ango entzuleak zein bizkor eta zelako ganoraz dantzatzen eban!

Andreak Naikibe'ri esan eutsan: neskato, zuk ez dozu dantzatu bear?

Eta Naikibe'k, begi baltzak bustirik, erantzun eutsan:

Nik basoan txorien kantu neurrian bai alai eta pozik dantzatzen nebala, baifia kantari orrean erritmo zoroan, nik ez dakit dantzatzen.

Eta Naikibe'ri bere negar iturria ez jakon agortuten.

Injineriaren emazteak Naikibe'ren biotza argitzeko ez ekian zer egin, eta bere etxera eroan eban.

Jauregi eder, aberatsa zan, atxurdinez egiña, lore-baratz ederrez inguratua.

Andreak neskatoari esan eutsan: Naikibe, rnesedez, zure betiko negar on atertu egizu. Jauregi eder au ikusten dozu? Emen, neure alaba lez, biziko zara... Janariak, jantziak, jolasak, lorak, serbitzariak, danak zuretzat dozuz. Pozik bizitzeko ez jatsu ezer faltako.

Naikibe'k erantzun eutsan: etxe onetan pozik bizitzeko gauzarik bearrezkoena falta da, nire aita eta ama maiteak. Arein ondoan bai pozik bizi nintzala ni, gure txabola pobrean!

Eta bere basoko lagunak, eta aitaren eta amaren ondoan emon zituan urte zoragarriak gogora ekarriz, Naikibe'ren begi baltzak bi iturri biurtu ziran, eta gau ta egun negarra dariola agortu eta, il egin zan.

Eta bere espiritu garbia, mundu "zibilizatuaren" gaineretik egaz, bere basoko txoko maitera joan zan... Panamerikan autopistaren azpian, bere txabola maitea egon zan lekuan, guraso maitean ondoan, atsedena artzera joan zan.

Eta orain, berebil arinetan, abiada guztian, autopistaz andik igarotzen diren "zuriak", abots au entzuten ei dabe gorrotoz esaten:

ZIBILIZAZINO MADARIKATUA.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

NAIAGO IL! (1988: 2n. SARIA)

Peru ez zan jaio aberats izateko, ez eta ludi onetako atsegin asko txastatzeko be. Alan be, baeukan gauza bat ona, Jaungoikoak emona, *zera*, Gorbeia'ko pagoek bezin osasun sendoa, beste askok, euren diru guztiagaz be, lortu ezindakoa. Oni ezkerak, bizitzako ezbeharak aldarterik onenagaz eroan oi ebazan.

Txiki-txikitandik, jasan bear izan zituan zorigaitz makurrak. Iru urte besterik ez eukazela, jaiotetxea erre eta bere sendi guztia kale gorrian gelditu zan. Bere gurasoek lanak izan zituezen beste bizi-leku apal bat alogeatzeko. Baiñan jasokun tamalgarriena Peru'k zazpi urte eukazela gerta *jakuen*: aita il! Berrogeita bi urteko gizon gordiña, iñoiz be gaxoaldi bat izan bakoa, birietako miñak artu eta gabetik goizera eroan *eutsien* beste mundura.

Peru nebarrebetan zaarrena zan; orregaitik bera zan bakarrik etxeko lanak egiten, amari apurtxo bat laguntzen eutsuna. Ori zala-ta, ikastolara juan ezinean be sarri aurkitzen zan koitadoa. Ambi urte eukazela, nunbaitetik diru pixkat amari ekarri gurean, mina-zulo batean lantokia eskatu eban, eta bai lortu be. Urte batzuetan antxen jardun eban.

*

Etxeko egoerea pixka bat arindu zanerako, Peru'k baeukazen urte batzuk geiago, eta zera egin eban, beste askok bezela, ezkondu. Maxepa'kin ustartu zan. Neskatu au bera bezin landerra zan, baiñan bai emakume maratzat! Peru'ri zegokion lakotxea.

Beiñ ezkondu ezkerro barriz, bizilekua be biar, eta Begoña auzoan aurkitu eben baserri txikitxo bat. Antxen kokatu ziran biak, Ama Birjiña'ren itzalpean. Eta bertan, biarra gogotik egiñaz, bizitzeko aña doi-doi ateratzen eben. Alan be, beti aldarte onean aurkitzen eban edozeiñek, eta beti gertu normairi laguntzeko.

Olakotxe biotz zabala eukelako, begira bein batean zer jaso jakuen: Gau berandua zan. Oean egozala, dan, dan!!!, bi zartada gogor, atadiko atean.

—Nor ote da or? —Peru'k— larri dator *batedonbat*.

Peru'k, azkar azkar jagi, argia ixotu, eta atera bidea artu eban. Oneri morrollua kendu eutsoneko, barruan ziran bi gizon, sartzeko baimenaren zai egon barik, eta euretako batek, ateari bultza egin ondoren, berak emon eutson barriz morrollua. Une artan, Peru bildurtu be egin zan, lapurren batzuk ote ziran irudituta. Baiñan

oneik bertan autortu eutsen Peru'ri zer gertatzen jakien, *zera*, eurak bi gazte abertzale baño ez zirala, eta Aberri Eguna ospatzeko asmoan, Eusko ikurriña jarri ebela Artxanda ganean. Ori zala-ta, norbaitek salatu ebezela-ko, España'ko ertzaiñak euren atzetik ebiltzala. Ia-ia atxitu be bai, Baiñan eurak iesari emon. Orretxengatik, gau artarako gordeleku bat baiño ez ebela gura.

—Ori baiño ez bada, egon lasai esan eutsen Peru'k. —Guk geurea beste oerik ez daukagu emoteko, baiñan sapaian bedar-pillo ederra bai... ortxe gaba igaro gura badozue...

Bai, pozik!

*

Gau aretan, danak ondo lo egin eben, bai Peru'k eta bai bi gazteak be. Oneik urrengo goizian goiz jaiki, etxe ingurua ondo miatu, eta euren ongilleeri esker beroenak emon eta gero, alde egin eben.

Andik iru egunera etorri jakuen gurutzea Peru eta Maxepa'ri.

Eguerdi eguerdian, baskaltzeko maia jarri eta gertu egozala, or joten deutsie atea. Maxepa'k urten eban, eta nor ikusiko? eta bi "txapeloker" pusil da guzti, aurreko aldean. Oneik, beste agurrik barik:

—Peru etxian al dago?

—Bai! —erantzun eban Peru'k sukaldetik— ementxen nago; eta an agertu zan. "Txapelokerrak" barriro:

—*Oin* iru egun, nori emon *eutzazun* ostatua, gabian?

—Nik ez dakik *nor ziran* —Peru'k—.

—Baiñan zuk bi gazte, gugandik iesi ebiltzanak, emen gorde zenduzen.

—Bi gazte artu nituan, bai —nik ez dot gezurrik esaten— baiñan zuengandik iesi ebiltzala *ointxen* jakin dot, zeuek esanda. —Peru'k lasai lasai—.

—Dana dala, geurekin etorri biar dozu —beste barik "txapelokerrak"—.

Gaiñeko zamarra eta eukazen oiñetako sendoenak artzeko beste betarik ez eutsen emon Peru'ri. Eskuak lotu eta an eroan eben, gaizkille bat lez. Alan be, Peru ez zan bape larritu. On egitearren ez al zoian ba olan?...

Epaillearen aurrera eroan eben. Onek itaun batzu eginda gero, espetxean sartzeko agindua emon eban, epai egunera arte, an egon bearko ebala esanda.

Eldu zan egun ori be, eta eroan eben barriro epaillearen aurrekaldera. Emen, lenengo eguneko itaun berberak egin eutsezen Peru'ri, eta onek erantzun bardiñak emon be. Beti bat esaten eban gure gizonak, bearrean egonari lagundu baiño ez ebala egin, eta ori beste pekatuak ez eukan bitartean, pozik juango zala barriro be espetxera, ara bialtzen baeben.

Alan be, Espaiña'ko epaillearen erabakia au izan zan: Bi urteko espetxea Peru'rentzat, Espaiña'ren etsaeri lagundu eta bere etxean gorde ebazelako. Bi txinelek besotik oratu eta an eroan eben barriro espetxeko gelara eta bertan laga, burdin-sare baten atzeko aldean.

Benetan itunak igaro ebazen Peru'k giltzapeko lenengo egunak. Izan be, mendiko aize garbian oitutako txoria, zelan alai egon espetxeko illunpean? Alan be, Peru'k, kristau jatorra zanez, laster aurkitu ebazen, an be, gogoia argitzeko zioak. Maxepa'k emoten eutson kezkarik andiena. Basarrian bakarrik, emakume bakarra...

Lenengo euki eban egokitasunean, gurasoen etxera joateko aolkua bialdu eutson andreari, arik eta bera aske aurkitu arte.

Egunak aurrera joiazen bezela, Peru espetxeko bizi-modura be jartzen zoian. Bizitza txiroan oittua egonez, errazago gertatu jakon arazoa. Askatasunik ezaz gañera, espetxeko lagunak berbetak, birao eta lizunkeriak emoten eutsien naigaberik andiena. Asko ziran, izan be ta, ortariko gizabidea agertzen eben bizilagunak. Baiñan kristiñau onak be arkitu ebazen bertan. Antxen egin zan betiko lagun gazte abertzale jator batekin. Au, bera lez, bi urtetarako sartu eben, Aberri-egun aurretik iragarki batzu ormetan jartzen atxiki ebelako. Onek, egun batez, olan eraso eutson Peru'ri:

—Ikusten dodanez, zuk euskeraz ederto egiten dozu?...

—Zer besterik egingo dot ba nik, amak orixe erakutsi eustan da? —erantzun eutson Peru'k, xalo xalo.

—Ni be txikitan euskaldun nintzan —jarrai eutson gazteak— baiñan gerora, aaztu egin jat euskerea, eta gitxi baiño ez dot egiten. Zuk erakutsi gura badeustazu, nik pozik ikasiko neuke barriro.

—Baiñan —Peru'k arrituta— zelan *gurozu* ba?, nik ez dot bein be maixutzarik eginda?

—Ez estutu orregaitik. Naikoa zenduke, nik, zelan edo alan, itauntzen deutzudanari erantzutea. Orrenbeste badakit eta ondo konpunduko giñake biok.

—Olan bada, *ointxen* berta asiko gara —esan autson Peru'k lagunari—.

Ene!... nire andreak baleki bere gizona maixu biurtu dala?!... barre be egingo leuke.

Eta, asi baziran asi, sei illabete baiño leen, Peru'ren lagunari aurtzaroko euskerea ederto zuzpeltu jakon, eta, ia-ia, Peru'k bezin erraz egiten jarri. Bide-batez, Peru'k gaztelera pixkat ikasi eban. Biak pozez beterik egozen. Baiñan ez ori bakarrik, gazte ura Aurrezki-kutxa batean kontularitza egiten ebana zanez, Peru'ri lanbide au erakutsi eutson, egunen batean, arlo onetan bizia ataratzeko neurrian erakutsi be. Nork esan?

Andik aurrera, espetxetik urteteko egunak zenbatu besterik ez eben biak egiten. Eta orra!, goiz batean, gozaltzen egozala, bertako zuzendaria agertu eta uste bariko albiztea emon eutsien, *zera*, laster Gabonak zirala-ta, zigor txikiak eukezen atxilotueri, onen erdia barkatzen eutsiela, eta gaiñera, espetxean zintzo ibilli zirareri, beste zigor erdiaren erdia be bai. Ori zala-ta, Peru eta bere laguna, biak, andik iru egunera, aske gelditu ziran. Santomas eguna zan...

Baiñan, 'ez dakizue!... bape uste barik, Maxepa'k Peru etxean sartzen ikusi ebanian, ondoeza egin eta ia lurra jo eban. Eskerrak Peru'k bere besoetan garaiz artu ebala...

Urte aretako Gabonak, aretxek bai zorionsuak izan zirala, Peru'ren etxian.

Onek espetxeko gorabera guztiak edestu eutsozan andreari. Au arribiur gelditu zan, ordurarte ixilik gorde-ta eukan eskutukia agertu eutsonian, zera, espetxean maixutza egin ebala alegia. Eta *oindiño* geiago, gaztelera apurtxo bat eta kontuliburuak eroaten be ikasi ebala, esan eutsonian Peru'k.

Alan be, arlo onetan lana billatzen asteko, beste osagarri baten bearra eukan Peru'k, *zera* bere ikazketak legeztatu bearra. Zelan lortu ori? Lagunak berak esan eutson, espetxean.

Gabon jaiak igaro ziranean, bereala juan zan Peru Akademia deituriko ikastola oietako batera, jardun-aldi labur bat egin ondoren, ikas-agiri legezkoa ataratzeko asmoan. Zuzendariari bere gogoia agertu eutsoneko, onek ontzat artu eutson dana. Gero, au bere aolkuak emoten asi jakon eta olan esan eutson Peru'ri:

—Ederto egiten dozu kontularitza ikasteaz, baiñan oartxo bat egin gura deutzut, ots, laster euskotarrok geure buruaren jabe izango garan itxurak datoz, eta oso egokia izango litzake, naiz kontularitzan, naiz beste edozer langintzetan, danok beti euskera erabiltea. Orretarako, —zuk gura badozu— guk emen euskerea be *erakusten* dogu.

Peru'k, arrituta, olan erantzun eutson:

—Baiñan ikusten dozu nik euskeraz badakitela.

—Bai, ikusten dot —irakasleak— baiñan zuk bizkaieraz egiten dozu...

—Zelan demontre egin gorozu ba bizkaitarrok? —Peru'k bizi bizi—.

Parkatu, baiñan —jarrai irakasleak—, zera esan gura deutzut, oraintsu asmatu barri dogula, euskotar guztiok, emendik aurrera, egin bear dogun berbeteia, batez be eusko-langilleok egin bear doguna. "El batua" deitzen deutzugu. Orregaz, euskotar guztiok alkartuko gara, eta gero, munduko beste biargiñekin be gai, egunen baten, beargin guztiak kapitalismoaren aurka egin bear dogun borrokan, garaille urteteko...

Peru'k aoa zabalik entzun eutson, ortik aurrera be, egin eutson "sermoia".

Jarduna amaitu ebanian, irakasleak "el batua" orretan idatzirik iragarki bat emon eutson Peru'ri eskura, esanaz:

—Ara, emen daukazu agiri bat, "elbatuagaz" zelan idazten dan ikusteko.

Peru'k artu eutson iragarkia eta asi zan irakurtzeko asmoan. Asi ba zan asi, ezin eban aurrera egin bere irakurketan. Tutik be ez eban ulertzen. Papera goikoaz bera ote eukan susmo egiñaz, bestaldera jarri eban, baiñan dana alperrik.

—Eta au al da "elbatua" edo esandakuori? —itandu eutson Peru'k—.

—Bai, bear bada, zail xamarra irudituko jatzu, bada, ondo ulertzeko, gazteleraz eta prantzeraz be aurretik ikasi bearra izango dozu ta... Baiña auxe da gure urtenbide bakarra. Orregaitik, bizkaitar guztiok, orain arteko izkelgia laga eta "elbatua" egin bear dogu.

Au entzutean, Peru, akullu zorrotz bat atzetik sartu izan baeutsien be, ez zan ariñago eserlekutik jaikiko.

Naiago il!, oju egin eta tximista lez urten eban kalera. Bereala, On Jeolimo abadearen etxeruntz jo eban, gertatuaren barri ari emotera. Egualdi otza egon, baiñan Peru izardi patsetan eldu zan abade-etxera.

Berba gitxi baiñan eurak onak esan eta gero, olan. eraso eutson On Jeolimo'ri:

—Badakizu zer asmo artu dodan?

—Zer?

—Zera, euskeraz *erakusten* astekoa. Bai, arrituko zara, baiñan espetxean ikasi dot ori egiten, eta edonun erakutsiko neuke nere euskera. Zuk, abade jauna, ikastolan lana egiten dozu, ezta?

—Bai.

—Ba... Euskeraz irakasteko maixuren baten bearrean bazagoz, neuk egingo deutzut lan ori, eta... doan gañera.

—Arriturik lagatzen nozu, Peru —esan eutson abadeak—. Ez estutu, arkituko deutzut gura dozun lan-toki ori, neure ondoan edo beste nonbaiten. Etorri emendik astebetera.

—Ederto —esan— eta Peru beterik jua zan etxera, jaso jakon guztiaren barri bere andreama emotera. Eta olan eraso eutson gero Maxepa'ri:

—Gerta zaitez bost edo sei, edo Jaungoikuak emon gura deuskuzan aña bizkaitar barri mundura ekartzeko, gure izkelki maiteari ondoren aberats bat laga daiogun.

—Bai, bai, ni gertu nago —erantzun eutson erdi kantari, Maxepa'k. Neregaitik ez da ilko bizkaiera.

On Jeolimo'k laster arkitu eutson Peru'ri, onek eskatu eutson lantokia. Antxen diardu gogotsu eta egunero, bizkaierari indar barria emoten.

BERGARETXE'tar JOSEBA



ITXAS - BITSETAN (1988: 3n. SARIA)

Izaro'ko konbentu zarreko aitzen artean, neskarrain bat bizi zan.

Izaro'tik Santurran'go uretan ibilten zan, eta arrantzale gazte mardul eta lerdenenak itxas bidetan bera ikusi naian, sarri euren ibilbidea galdu egiten eben eta etxeetako andrak kezkatuteko eran kaietara eldu.

Arrantzale andra gazteak, euren senarrak itxasoetan neskarrainiak zorabiatu eta galduta ibili ez eitezan, apio eta opio ipinten eutsen patrikaretan, baiña gizonak ba ekielako neska arrainari orrazia atsegin jakola, andrak ipinitakoa uretara jaurtiten eben eta or ibilten ziran gero aitzaki-maitzaki etxeetan, euren argalkeriak ezin zurituta, eta andrak euren orraziak nun *ete* ziranka.

Iruña'ko gongotzainiak arrantzale andren eskabide ugari eukiten zitun, neskarrainia zala-ta, onek euren senarrak aidean erabilten zitulako, eta gero senarrak euri baketan itxi ez.

Origaitik ia urtero joaten zan Saturran'go aitzetara, gotzain kapa ta guzti, eta Eskilantxarri deiturako aitzaren azpitik konjuroak itxasoan zear zabaltzen alegintzen zan, batez be Neskarrainia gogoratuaz, ekaitzak, aize zatarrak, olatu andiak eta galerrenak eurak baiño askotan neskarrainaren maitekeriak eta adurkeriak kalte geiago egiten ebela itxasoetan gizonen artean esaten eutselako.

Baiña gotzainia zartu zan.

Iruña'tik itxasertzerako bidea luze ta neketsua egiten asi zan beretzat. Erosoago nunbai Naparroa'ko erribera aldeko arda bideak, itxas-ertzeko arrain bideak baiño.

Itxasoetako lurrin kresaltsuak azurrak gogortu egiten zituen eta unorez bete, ardaak barriz liburu zarreten asi zan beretzat. Erosoago nunbait Naparroa'ko erriaren biotza alaitzen, eta biziari, askoren irizpidean, nekeak arintzen. Eta neskarrainia konjuroen ezeppen eta zigor barik, gero ta nasai ta txairoago ikusten eben itxas gainean, batez be egun lainotsuetan.

Saturran'go aitz artetan egin zitun zuloak bere atsedean aldietarako, eta aitz artetako ondar-arri eta ondar maietan etzanda ikusten eben urrundik, ur potsuetan ispillu orde bere irudia ikusiaz apaindu eta dotoretzen.

Mariñelak esaten eben aizeak eurak be neskarrainaren gogora dantzan egiten ebela. Batzutan aize biguneiten egin eta inguru guztian giro epela sortuaz.

Bestetan aitz zuloen artean, larritu ondoren, aize zaskarrak zabaltzen zitun, danak aidean edo tatarrez erabiliaz.

Ba eukan olatuak gogor jotzen eben tokian, zuloren bat, iñok ikusi barik gauak eta ekaitz egunak igaroteko.

Baiña esanak esan, gizonak maite zitun. Arerio baiño adiskide eta lagun geiago zan. Eta gizonak maite zitulako, izurde eta kaielen begiko egin zan. Eta errikitsua zanez, izurdak be zorabiatu zitun eta berak agintzen eutsena beteten erakutsi.

Origaitik Udabarria agertu ordurako, Mutriku eta Ondarru, Lekeitio nai Bermeo aldiarrantzaleak santuekaz kalez-kale ibilten ikusi ondoren, izurde deitzen eutsen, pillaka batu eta Santurran'go aitz puntetan asi eta Matzaku'raino itxasoan zear jolastuten lez ibilteko aginduaz, oraintxe sartu ta geroago azalera urten, dantzari lez, alako txistu antzeko ulu sentikorraz, itxasoetan ebiltzan antxoia moltsoak (antxoia "gorriak" deitzen dautse arrantzaleak) alkartu eragiten. Eta izurdeak baiño zoroago biurtzen zitun arrantzale berberak, treñeru zarretan boga ta boga, eurak nora deitu ara joanaz, izerdi likin eta belatan aizeak emoten zitun txipli-txaplaen ots leunak buru gainetan igarten zituela.

Arrantzaleak arrain "gorriak" inguratu eta sareak zabaltzen ikusi edo igarten zituenean, izurdak eskutatu egiten ziran, eta bide luzeak eskutuan egiñaz neskarrainari loxintzak eta bigunkeriak erakutsiz barriro bere alboreratu.

Izurdak, kaielak, tintoletak eta orrelako arrain eta izabereak igarri egiten dabe euren zeregiñakaitik itxasoan lagun dituen arrantzalien esker ona daukela. Ez-bearren bat gertatu bearko da arrantzaleak izurde bat zauritu edo ilteko. Eta orrelakoetan, itxasontziaren gainetik aborretik estriborrera zoro antzera saltoka ibiliaz euren asarrea agertu edo erkutsi nai izaten ba dabe be, laster baretzen dira, konturatuko ba litzakezan lez, arrantzaleak eurak lotsatu egiten dirala orrelako gertarekaz. Eta nai ta eurak alboan emen-nagoka lez ibili, arrantzaleak ez dabela kakurik ez arpoirik erabilten euren

aurka, ez-bearrez zauritutakoa eta noiz ilgo dabillana jasoteko ezik. Eta gero Jainkoen lutzarreri lez banatzen dabela euren aragia andiki eta maiteen artean, oiturazko otoitzen orde, kielkien arrazari aintza eta gorespelik ziontzoenak esan eta abestuz, antziñetako eraetako yaur-eskintzetan lez.

Neskarraña Saturrararen'en bizi zan artean atxetako arrantzaleak be pozik eta sarri joaten ziran ara.

Ba ekien karraspio asko ebillala, eta neskarraña bertan ibilten zanetik geitu egin zirala esaten zan. Karraspioei andre usaiña artzen dautse askok eta ortik datorkiola sinisten dabe batzuk.

Ordez, akulak be, neskarrañaren atsegin ziran. Baiña pekatu egin eben. Neskarrainak Saturrarango aitz artea eskiñi eutsen biziteko, berari pikoka zorriak kentzearen truke. Baldintza bakar bat ipini eutsen. Euren piku zorrotzik ez erabilteko aitz egaletan egozan lapaei aitz-utsunean zulotxoak egin, aizea artu eragin aitzen lotuerari indarra galdu eragiñaz eta lapen barrukoa, mamiña, jatea. Neskarrainak debekatu, galerazo egin eutsen *ategin* ori, berari lapa-zorriak geitzen edo ugari-tzen asi jakozalako. Eta zigor bat ipini eutsen: lapen eskola askatu eragin eta barruko aragia itsututa lez zurrapatzen inarduen artean, aitzetako kirrixka, karramarro eta amarratz guztiak akulei buztan aldeko aragia jango eutse-la, eta orrela, itxura barik, sarnaz beteta lez itxi.

Arrezkero akularik geiago ez da ikusi Saturrararen'go aitzetan, neskarraña agindutako debeku bakarra ausi eta atsegiñetan itsutu ta zabartu ziralako.

Olaxe ziran gauzak eta olaxe denporak igaro. Baiña Eleiza *magok* eta aztikeriak kendu ta aldatzera zaletu zan. Gotzain barria aukeratu eben. Itxas zalea orain-

goa. Itxasoari gatza be kutsatu eutsela ta barrero konju-roak asi ziran. Eta neskarraña eskutatu zan, gizonak billatu ez dautsen aitz-zuloen batetik itxas-ertzean dagozan eskutuko leiza (koba) andien baten sartu, itxas irakiñen olatuen bitsa sartzan ez dan tokien baten, an oiñak garbituz orraztu eta itxas ooldietan batzen dauzan kuxakeriekaz alikatuaz.

Baiña mariñel zarrak diñue bein, besigutara joanak ziran baten, egun sentia baiño len kanpaiak entzun zituela luzaroan. Eta ez zirala ez Idurrekoak, ez Antigua'koak, ez Izaro'kuak.

Arraunetako ontziak galdu eta bapore eta motorrekaz ibilten asi ziran denporetan zan ori. Egun aretan besigua artzen ekien Saturran-kala deiturakoan arrantzatu eben besigua be gasoil usaiñez beteta eta larrituta artu ei eben, eta itxas-gaiña bera, gasoil tortikaz beteta euki ei eben.

Orduantxe esan ei eban neskarrañagaz emetsetan be egiten eban Millan zarrak: Oraintxe bai geiago ez dogula ikusiko Neskarrainik!

Eta egun baten Ezkilantxarri puntara igo nai izan eban, an Neskarrain'en oroitarri txiki bat ipinteko asmotan, baiña fuel-oil, gas-oil eta orio zakarrez bateta aurkitu eban inguru guztia eta Jainkoaren egitura gizonen zikinkeriz loitua ikusi ebanean, txapela kendu ta ez eban jakin zer egin; denpora luzean negar gurea samurtu eziñez egon zan, itxasoetako zoritxarretan mallo guztiak urtuta eukazalako, baiña alako baten begiak puztuteko aiñako mallo lodiak urten eutsen eta arpegi-ko zimurretan zear jausten igarriaz, ezin esanez etendako a-gu-ur...! ittogarri batek urten eutsan.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

KATALIN eta TXAKURRA (1988: 4n. SARIA)

Bizkaiko erri txiki baten, "Agarre" izena daukon baserri ederrean, Martin eta Katalin senar-emazte nekazariak, euren seme-alaba, Lore eta Kepa gaztetxoekin alkarregaz baserriko lanak poz-pez egiteko bizi ziran.

Baserri orren lurretan bizitza atarateko, nekazaritzaz gañera, abere esnedun batzuk be eukezan bertako lanak egiten laguntzeko eta bide batez bezero batzueri esne ta barazkiak saltzen be, errira joaten ziran.

Eurakin batera, oitura dan lez etxeko lagun eta baserria bide batez zaintzeko, "ZURI" izena eukan txakur eder bat be izan eben baña, onen etxe barruan sartuta, umeakin jolastea atsegiñago eban etxe inguruak zaintzea baño, Kataliñek etxean egiten ebazan garbiketak zikindurik.

Ama Katalin etxeko andrea, emakume on, biotz zabal ta benetan maitekorra zan, baña... oso garbia ta etxea beti txukun eukitea atsegin ebana. Au dala-ta, ez eban ondo ikusten seme alabak etxe barruan egiten ebazan astrapaladak, berak ain ondo garbitzen ebazan tokiak zikinduten ebezalako. Au gaitik, bere seme Lore eta Kepa gaztetxoekin alkar izketa bat izan ondoren, irurok ados jarri ziran, etxe barruan egotea, atean baño maiteago eban "ZURI" txakurra bere atarteko edo etxe aurreko kutxara eroatea: eta ez bakarrik au, kutxa zarra aldatu eta pozik izan daiten baita bere kutxa barri eder bat egitea.

Erabagi au bete ondoren, seme-alaba eta Kataliñen artean bakea lortu zan eta aurrerantzean "Agarre" baserrian bake-bakean bizi izan ziran sendi guztia.

Txakurra, etxeko sendi guztien laguna zan: Martin lurgintza lanean zebillanean, "ZURI" zaintzen ebazan etxeko landetan barrutian zebiltzan abereak. Katalin bere seme-alabak ikastolara eroaten joaten zanean, beragaz joaten zan, joan-etorrirako bide zain edo lagun izateko. Oneik ziran ba txakur orreik bete bear ebazan lanak.

Etxe aurreko kutxan egoanean ta sendi guztia etxe barruan ateak itxirik iñoren ardura barik alkar izketan *egoazala* iñor baserri ingurura agertzen ba zan, laster emoten eutsen norbait inguruan ebillen barri; bere aunkak zein motakoak ziran baekien sendiko guztiak. Gorro-

to barik artu eban bera kanpoan lotzeko artu eben erabagia.

Baña egun baten jazo zan sendi guztietan jazo daitekena: Katalin gaisotu zan eta uriko gaisotegi batera eroan bearra izan zan eta bertan egon bear izan ebazan egun batzuk. Eta, i,zer jazo zala uste dozue? Katalin gaisotegian egon zan egun guztietan ate aurrean etzanda alde egin barik egon zala "ZURI", etxeko andreak gaisotegitik urten arte, beragaz batera etxera joateko. Katalin arrituta geratu zan txakur orren egikeraz eta ezker orde txakurragaz bakea egitea erabagi eban.

Onetarako lepoan igurtzi batzuk eginda, txakurrak izketan ba'ekian lez, esan eutson: emen nator zure kutxa ondora eta bereala katea askatu eta esan eutson; zatoz sukaldera esker oneko txakurra. Eta okela zati eder bat eskuan artu eta emon eutson sukaldean jan dagien, esanik; gaurtik aurrera, sukaldera etorriko zara eta ementxe jango dozu zeure janaria, jan ba emen okela zati au. Txakurrak baña, apal-apalik okela zati au artu eta astiro-astiro kanporatu zan bere kutxa ondora eta antxe bere etxe aurreko kutxa ondoan jan eban jateko ori eta aurrerantzean be orrela egiten jarraitu eban, bizi izan zan aldi guztian.

Urteak aurrera be bai ta, "ZURI" ikusmena ta adorea galtzen asi zan. Au ikusirik, "Agarre" baserrikoak itun egozan txakurraren berakada ikusi-ta.

Gau baten, apalduten egozala, sarrerako ate zarata izan zala-ta, Martiñek atera urten eban nor ete zan ikustera eta atea zabaldu ta batera, txakurra barrura sartu ta zuzen-zuzen sukaldera joan zan eta Kataliñen magalean bere anak ipiñi ta bertan betiko lotan geratu zan.

Gaur "Agarre" ko sendi guztiaren baietzaz, baserriko landa tontorrean lurperatuta dago, bere gañean arri aundi bat ezaugarri lez dala bere egikera onen gomutaz. Au ei-diño:

Emen dago lurperatuta gure txakur leiala izan zan "ZURI" gorroto barik be bizi daitekela erakutsi euskuna.

ALZOLA'tar ELIXE

GURE LUR

Lur biribilla, bira biraka,
dabil beren ardatzean,
berezo legez esana eiten
eguzki ingurunean;
argitik argi eguzki printzaz
artzen bizia goizean,
gero egunez bero berorik
maitasun ederrenean.

*

Euskalerrriak beren tokian
indarrez dauka bizia,
arkaitzak gogor, mendiak legun
arru-barren berezia;
solo ta zelai ederrak ditu
ta baratzetan loria,
euzko gizonak lur ontan dauka
legezko eskubidia:

Gure arbaso aintzinakoak
zer eduken baruetan...!
jakintz ain argi ta ongarria
eratzeko legietan;

Euskaldunena da euzko lurra
bizitza legez artua,
millak urteetan lan ta izerdiz
eten gabe atxurtua;
euzko gizona izan bear dau
jabe bakar tajutua,
Euzkadi da-ta euzko semeen
Aberri ama osua.

Jakiturizko izkuntza bat dau
arkaitz artean sorturik,
izarrak baiño joriagoa
argi indarrez bizturik;
zer dau zelaiak, zer dau mendiak
zer euzkotarrak bizirik,
munduan diran izkuntzlariak
arrituak ditularik.

*

Gure legedi argia dabil
munduko araudietan,
gure guraso aintzagarriak
doaia euken benetan.

PAULIN

ARBASOEN - IZKUNTZA - ZALEAK JAKINTZA ELKARTEA Eri Euzkera

"ARBASOEN - IZKUNTZA - ZALEAK", "ELKARTEEN ERROLDE NAGUSIA"n ezarria izan da, G/1249/88 zenbakiz.

Elkarte au zertarako sortu dan, "Arbasoen - Izkuntza - Zaleak" izenak argi adierazten du noski. Elburuak, Araudia'k, 2gn. Atalean, bereiziki, azaltzen denez, auek dira:

- A) Erri Euzkera ikasi, bizkortu ta zabaldu, E rialde bakoitzean bere euzkalkia eta Euskadi osorako danean, Azkue'ren "Gipuzkera osotua". (Au, batasunaren *egin-gaia* izan zan).
- B) Arana Goiri'tar Sabin'ek egin ta gero Azkue jaunak onartu ta bizkortu zun idazkera izango da gurea.
- C) Erriko "EUSKERAZAINTZA", Jakitun Batzarrak ditun arauetan oñarrituko da ta aurrera ere, sorburua uzten ez dun artean.

- D) Gure bidea dun edozein Erakunde'rekin ar-emana izan nai genuke.

Aitatutako elburuak irixteko, ekintza auek ditugu asmoan:

- A) ITZALDIAK.
- B) AR-EMAN BIDEAI (izparringi, irrati e.a.) IDAZLANAK BIALI.
- C) BAZKIDEENTZAT ADIERAZPEN IDAZKIA.

Adierazitakoakin, Elkartea'ren asmoak argi ageri diran arren, euzkalkiak landu eta zabaltzen aleginduko gerala, berriro esan nai degu; au bai da, gure iritziz, EUZKERA jatorraren iturria.

Zeaztasun geiago nai izan ezkeru, 1067 Bibal-tokira idatzi, ala (943) 287130 urrutizkiñera deitu.



EKUADOR

Mundaka'ko seme dan Aita Bollegi Jose Mari'k bere lanen barriak bialtzen deuskuz Ekuador'ko lurraldetik.

ZELIKA

Baso-basoan dago erri au. Bide barik. Aspaldian Loja'ko baserritar batzuk etorri ziran emengo lur basatiak lantzeraz.

Serrak, atxurak eta matxeteak eskuetan basoko zugatz andiak bota, eta egurrezko etxeak egin ebezan. Urte txarrak lenengoak. Baten baiño geiagotan dana bertan bera ixteko gogoia etorri jaken, baiña ekiñaren ekiñez, neguko otzak, eta udako beroak gaindituz, erri polit au eragi eben.

Gaur sei metroko bide zabal ederrak Kitoraino nasai eroaten dau. Elizea tontortxo batean eragi eben, eta aren inguruan beragotxoago erri guztia zabaltzen da.

Ni, eleiz-itzaldiak egitera joan nintzanean eleiza kristiñauetz leporaino bete bete egin zan. Azken egunean, eleizak guztiak ezin artuz, nire misiño aldia landa zaba-lean emondako meza ederraz amaitu genduan.

EL INJENIO

Benetan jende langillea erri onetakoa. Lurra txiroa da, baiña ekiñaren ekiñez bizitzeko beste lortzen dabe. Eskola-etxe ederra dauka, eta bertako ikasleak, irakasleakin batera, nire itzaldiak entzuteraz lau aldiz etorri ziran.

Erri onetako parrokoari eskerrak bizilagun guztiak Jaungoikoaren deiari erantzun on bat emon eutsoen.

LA NARANJA

Erri onetako nekazariak euren ugazaben lurraz indarrez jabetu ziran. Lan egitea maite dabe. Eleiza andia eta ederra egin dabe, baita eskola-etxea be. Eleiza lenengo egunetik leporaino bete zan, eta erritarren arteko aspaldiko gorrotoak barkatu ziran.

Azken eguneko "gurutz-bidea" izan zan elizkizunik ederrena. Milla gizon baiño geiagok esku-artu eben elizkizun onetan. Danak begirune eta isiltasun osoan, oso egoki.

Azkenean kanpo-santura joan ginan. Eguzki beroa zeru urdiñean baiña espiritu beroagoa ango kristiñauen biotzetan. Nik ez dot jendea lur-santura eroaten bildurra sartzeko, zeruko itxaropen betearen poza zein ederra dan erakusteko baiño.

TXILLOGALLO

Ni joan baiño iru illabete lentxoago lapur batek erri onetako eleizan ostu egin eban. Urrezko kalizak 27,000 sukre-dirutan saldu ebezan. Gero eleiza bera be dinamitaz bota gura izan eban. Protestante fanatiko batek egite au txalotu egin eban. Erria biziki asarratu zan.

Ni ara joan nintzanean lapurretako gauzak eta gorrotoak apur batean aztuta egozan. Nik misiotako egunetan ez neban lapurretarik aitatu be egin, maitasunaren irabazia gorrotoaz ez galtzeko.

Erriko guztiak eleizan alkar artuta, "karismotikoen" antzera otoitz luzeak eta gartsuak egin genduzan.

LAS CUMBRES

Udaberria zan, azia ereiteko sasoia. Baiña ala ta guztiz be Jaunaren itza entzuteko jende pilloa dator eleizara.

Euria egin eban eta bideak lokatzez beteak egozan. Eleizara joatea kosta jatan. Baten baiño geiagotan lurra-ri mosua emon neutsan.

Jendeak, gaztediak batez be, Jaunaren deiari ondo erantzun eutsan. Aste beteko berbaldiakaz, fededunen biotzak bigunduta, Jaungoikoaren aziak frutu ugaria emon eban.

LAS LIMAS

Erri txikia da. Mendi biren artean dago. Eleiza ederra eta zabala dauka. Kanpotik etorritako kristiñauetz bete zan. Nik danen autortzak entzuteko lan andia artu neban. Goizean, eguerdian, bazkal orduan, baita gauzez be jendea autortzailearen eske atertu barik ebillen. Lan neketsua eta aztuna, baina Jaunaren begietan ederra eta onuragarria.

JOSE MARI BOLLEGI. S.J.

AITA SANTUA

Goiria

KEPA DEUNA BURU

Asko esan eta idatzi da Aita Santuari buruz. Ogei gizaldi dira Kristok lenengo Aita Santua aukeratu ebala. Pedro Apostolua aukeratu eban Kristok lenengo Aita Santu. Biztuera ondoren zan. Irugarrenez agertu jaken Kristo ikasleai Tiberiades itxas-ertzean. Maite ba'eban galdetu ondoren eta Pedrogandik baietza entzun ondoren, itzok esan eutsazan Arek oni: "Zaindu egizuz nire bildotsak, larratu nire ardiak".

Kristoren artaldearen buru eginda geratu zan Pedro itzokin. Bardin Elizaren buru be. Apostoluen buru lez agertuko da Pedro aurrerantzean eta berak zuzenduko ditu batzarrak euren artean.

Burutza au Pedroren ondorengoentzat be izan zan. Argi agertzen dabe au Elizaren batasunak eta betikotasunak. Ondorengo Aita Santuak Pedroren jarraitzalleak izan ziran. Erromako lenengo Gotzaia izan zan Pedro, beraz uri onetako Gotzain jaunak bere jarraitzalleak, bere ondorengoak dira Apostoluen egiñak, idazkiak eta edestiak agertzen dabenez.

AITA SANTUA

Au olan-dala auxe desakegu: "Aita Santuen nausitasuna jainkozkoa da, Jesukristok Berak emondakoa baita. Nausitasun au apostoluen bera da, bai antxiñatasunean, irakatsietan eta jarraipenean.

Aita Santuak almen eta eskubide aundi-osoak daukaz Elizan.

Ona itz laburretan Aita Santuaren almen eta eskubideak. Ona Aita Santua zer dan Elizan eta Elizarentzat.

Kristo Bera da egiazko buru ta nagusi Elizarentzat, baiña ikus-eziña. Alan be Berak zuzentzen dau Eliza, Berak argitzen eta indartzen. Berak damotso bizitza. Eliza baiña lagundi —bazkun agiria da ta buru agiri bat euki bear dau ta buru au Aita Santua da.

Aita Santua gaiñera Pedroren ondorengoa ta bere jarraitzallea da; Eliza guztiko Irakasle goren. Artzain eta kristau guztien Aita. Eliza guztizko Artzain.

ESKUBIDEAK

Zeintzuk dira Aita Santuaren eskubideak? Pedro donearen egizko ondorengoa dan ezker Kristogandik artu dau Eliza guztiko burutza, Artzaiñak eta menpekoak zuzentzeko eskubidea dauko. Batikano Lenengo Batzarrak diñoanez Aita Santuaren burijiza Elizaren batasunaren oiñarri agiria da.

Jesukristok nausitasun osoa emon eutsan Pedrori bere ordezkari egin eban. Aita Santua Pedroren ordezkari dan ezker bera lez Jesukristoren ordezkari da.

Au egiztuteko: 1.º Kristok lenendasuna emon eutsan Pedrori Eliza guztirako; 2n.: burutza au, lenendasun au betiko izan zeiteala ta Pedroren ondorengoak be euki egiela gura izan eban Jesukristok; 3n.: Aita Santua Pedroren jarrailea dala Erromako obispaduan agertzen dau edestiak.

IRU ESKUBIDE BEREZI

Oneik dira iru eskubideok: irakatsi, santutu ta zuzendu. Berak erabili leikez eskubideok edo bere ordezkarien bitartez be bai.

Aita Santuaren eskubideak jainkozkoak dira, ezpa'dauz artzen Elizagandik Kristogandik baiño. Kardenalak aututen dabe Aita Santua, baiña Jesukristok emon dautsoz eskubideak Pedrogan.

Aita Santuaren eskubideak gorenak, orokorrak eta bere-bereak dira.

Batikano Lenengo Batzarrarenak dira irakatsiok.

JAKINGARRIAK

Elizaren Irakasle lez Aita Santuak kristau erlijioari, siniskaiari, zillebiziari ta gurtzari buruz dagokiozan gauza guztiak irakatsi leikez.

Gaiñera Aita Santua ezuskor da Elizaren Irakasle danez sinismen eta oiturai buruz.

Iru gauza bearrezkoak dira uts-ezin onetan: "1.º Bere agindua, bere legea sinismenari ta oiturari buruz izan daitela; 2n.: bere erabagiak kontzientzian agintzen dauala esan dagiala; 3n. kristau guztien Artzain eta Irakasle bezala itz egin dagiala. Gotzain eta Artzain goren lez euki bear da Aita Santua. Aita Santua Eliza guztiko Gotzain goren da. Bardin Artzain goren. Eta bai Gotzain lez eta bai Artzain lez santutu ta zuzentzeko eskubidea dauko. Berak, Aita Santuak, bakarrik sortu leikez Eliz-Barruti-barruak, aldatu euren mugak, geitu ta kendu. Berak bakarrik sortu leikez Kardenalak, Patriarkak eta Gotzaiñak. Berak, Aita Santuak bakarrik egin leikez Batzarrak eta Batzarrak artutako erabagiak izenpetu. Beste ainbat ezarri leikeo gai oni, baiña esandakoak naiko Aita Santuaren ezagutza eukiteko naizta sakonkiro ez. Beraz itzala, begirunea ta menpekotasuna Aita Santuari.

JUANTXO-TXIKIREKIN POZKARIOZ

(21)

"Arren' irribarre egizu". Zure umea ondo eziko ba'dozu, irribarre eta alaitasuna bear-bearrezkoak dozuz. Zabaldu zure inguruan alaitasuna eta poza. Zergaitik beti goibel ibilli? Ez ete da ohea illuna baiño argia? Argitu egizuz zure inguru guztiak eta zuk argitutako inguru orreik, zeu egingo zaitue argiago. Orra danok irabazian, eurak eta zeu, eurai emondako argiak argitu zaitu zeu be...

Illuna zabaltzen ba'dozu, inguru orretako illunak illunago egingo zaitu zeu be.

Neure inguruan zabaltzen dodana, orixe berbera biurtzen dauste ingurukoak, baiña aundituta... Nik poza zabaltzean, nire inguruko pozak geiago poztuten nau. Poz ori zabaldu ala, aundiago egiten jat ingurutik datorkidan poza.

Bardin negarrarekin be: neure tristurak zabaltzean, tristura geiago datorkit biotzera, inguru guztiak tristetu dodaz-eta... Asarreagaz, bardin gertatzen jat.

—Orreik orrelan ba'dira, nire barruko ezbearrik agertzea ez jat komeni.

—Lagun bakar bateri agertzea ona da; baiña, gai orreik zure inguruan zabaltzerik, orixe bai ez jatzula komeni.

—Orduan, zer..?

—Argia, poza, alaitasuna, biotz-ona orreik danak agertu eta zabaldu; zeu eta ingurukoak, danok izango zarie irabazian.

—Eta, txarrak..?

—Illuna, naigabea, bildurra, tristura, umore txarra, biotz-ankerra, orreik barruan gorde zazpi giltz eta maratillagaz... Aal ba'duzu, beintzat.

Ezin ba'dozu, joan txoko batera negar egiten, danen aurrean egiten ba'dozu, danen kalterako izango da-ta.

*

Gogo-illun zagoz? Argitu egizu, mesedez, aurpegi ori, argia zabaltzeko; zeure umetxuak argi asko bear dabe euren inguruan, ondo aziko ba'dira. Landararik ez da azten argi barik eta zure umetxoak argi asko bear daben landarak dozuz. Argitu euren barruak, euren gogoak indartu, on guztien aziak erein euren animeetan. Zenbat eta aalmen gitxiago zeure umetxoak, ainbat eta argiaren egarri geiago. Ez egizuz illundu eta euren indar apur orreik ez egizuz uxatu.

Zeure buruarekin aaztu eta besteen onari begiratu. Ekin besteen zoriona sortarazten eta zeure biotza poz-iturri izango jatzu. Poz-iturri zeuretzat eta poz-iturri inguruko guztientzat.

ARRINDA'tar ANES

AZKEN SASTADEA IZANGO ETE

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Arria, negarrez,
eutsi ezinik.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Mustur zorrotz onek.
erruki barik.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Arrizko biotza
birrindu arte.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Eriotz samina
elduko ete?

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Oi gure Euskal arrizko Erri au!
Txin, txin, txin...

Hamburg, 88-11-27

1. MARTIARTU

Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA-A IJE AHORROS
VIZCAINA